

Bageraren buletina

2019 apirila

Kaixo bagerakide!

Apirileko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.



Aek-k antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa erraldoiak apirilaren 4an Garesen hasi, eta 10 egunez gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du, apirilaren 14an Gasteizera heldu arte. **Apirilaren 12an iritsiko da Donostiara.**

Bageraren kilometroa Grosen izango da. Aurten, Mintzalagun egitasmoak 25 urte bete ditu eta urte horietan guztietan euskara praktikatu nahi izan duten kideak laguntzen aritu diren bidelagunak omendu nahi ditugu. Beraz, bi bidelagunek eramango dute eskuz esku doan lekukoa. Gurekin Korrikan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.

Km zenbakia **2.063** da

Lekukoa hartzeko tokia: **Miguel Imaz / Kolon pasealekua**

Eguna: **apirilaren 12an**, ostirala

Lekukoa hartzeko ordua (komeni da 15-20 minutu lehenago bertaratzea): **17:29**

21. KORRIKA. Auzoetako ordutegiak

1. Errekalde (16:28)
2. Añorga (16:35)
3. Antigua (16:41)
4. Erdialdea (17:15)
5. Gros (17:29)
6. Parte Zaharra (17:57)
7. Erdialdea (18:11)
8. Amara (18:15)
9. Amara Berri (18:25)
10. Loiolako Erriberak (18:46)
11. Loiola (18:53)
12. Martutene (19:07)
13. Loiola (19:21)
14. Egia (19:35)
15. Intxaurrondo (19:56)
16. Herrera (20:23)
17. Altza (20:31)
18. Bidebieta (21:31)

[Mapa ikusi](#)

Bageraren Batzar Nagusia

Otsailaren 23an, ospatu genuen Bageraren urteko Batzar Nagusia. Bertan hitz egindakoa aktan jasota dago eta edozein bazkidek interesa badu eska dezake.

Giza Eskubideen Zinemaldia. Gonbidapenak

Giza Eskubideen Zinemaldirako bi film hauetarako gonbidapenak ditugu zozketatzeko:

Apirilak 6, 16:30, [THE TOWER](#)

Apirilak 12, 20:00, [GRÂCE A DIEU](#)

Zozketan parte hartu nahi baduzu zure izen abizenak bidali bagera@bagera.eus helbidera apirilaren 3a 12:00ak baino lehen. Eta zein filmetarako nahi dituzun zehaztu.

Buletina posta elektronikoz



Buletina paperean jasotzen ari bazara eta posta elektronikoz bakarrik jaso nahi baduzu eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea bagera@bagera.eus helbidean edo 943005074 telefono zenbakira deituz.

Ez duzu paper gehiago gorde eta artxibatu behar izango eta ingurugiroa zaintzen lagunduko duzu.

Helduentzako antzerki ikastaroa

Aurten helduen III. Antzerki ikastaroa antolatu du Bagera Elkartek.

Apirilaren 29an hasiko da ekainaren 17ra arte, astelehenero, arratsaldeko 18:00etatik 19:30etara Bagera Elkartean. Oihana Maritorenaren eskutik abiatuko da ikastaroa (euskara irakaslea eta aktorea).

Ikastaroak 20€ balio du (bazkideek eta langabetuek 15€) eta izen ematea bagera@bagera.eus helbidean edo 943005074 telefono zenbakira deituz egin behar da. Animatu eta parte hartu!



Elkarrizketa Filosofikoak

Apirileko Elkarrizketa Filosofikoan feminismoa izango dugu hizketagai. *Feminismoa, botere politikoa, indarkeria matxista eta zaintzaz* arituko gara hain zuzen. Oinarrizko testua "Feminismoa eta politikaren eraldaketak. Mari Luz Esteban (Lisipe.- Susa)" 2. Atala [Zenbait izarguneren argiak eta ilunak](#).

Ohi bezala hilabeteko lehenengo astelehenean, hilak 1, elkartuko gara Urrats euskaltegian (Amezketarrak kalea, 12) arratsaldeko 19:00etatik 20:30era.

Azkizura irteera, Xotei txakolindegia

Apirilaren 6an, Getariko Azkizura joango gara Xotei txakolina dastatzera. Goizeko 09:45ean jarri dugu hitzordua Autobus geltoki kanpoan dagoen markesinan (Federico Garcia Lorca, 2), bertan hartuko dugu autobusa 10:00etan Getariara joateko. Getariatik Azkizura getariar bagerakide batekin egingo dugu oinez eta berak egingo dizkigu gidari lanak. 3 kilometroko ibilbidea dago eta San Prudentzio eta Azkizuko ermitak ikusiko ditugu bidean. 13:00ak aldera, berriz, Xotei txakolindegiko arduradunak txakolina nola egiten den azalduko digu. Bazkaria txakolindegian bertan egingo dugu, norberak eramandako bazkariarekin. Bazkalostean, solasaldia eta kantuan aritzeko aukera izango dugu. Ondoren Getariara itzuli eta autobusez bueltatuko gara Donostiara.

Izena emateko 5 euro 30350092570920042476 kontuan diru sarrera eginez egin behar da (izen abizena jarri) apirilaren 5erako eta mintzalaquna@bagera.eus helbidera mezua bidali.

Agenda laburtua

Apirilak 1, astelehena, 19:00etan "Elkarrizketa Filosofikoak" Urrats Euskaltegian.

Apirilak 6, larunbata, 9:45ean "Azkizura irteera" Autobus geltoki kanpoko markesinan.

Apirilak 12, ostirala, 21. KORRIKA Donostiatik.

Apirilak 20, larunbata, 12:00etan "Kantu Jira" Fermin Calbeton kaletik abiatuta.